

PROGRAMAREN DATU OROKORRAK

Departamentua:	04 - GOBERNANTZA DEPARTAMENTUA
Atala:	0440 - Administrazioaren Berrikuntzako Zuzendaritza Nagusia
Programa:	400 - Foru Aldundiko zerbitzuen berrikuntza eta eraldaketa
Funtzionala:	920 - Administrazio orokorra

Programa mota:

Finalista

Misioa:

Programa honen misioa da Foru Aldundian berrikuntza eta eraldaketa bultzatzea, herritarrei ematen dizkiegun zerbitzuak hobetzeko, Aldundiarekin dituzten harremanak errazteko eta gizartearen beharrei modu eraginkorrean erantzuteko helburuarekin. Horretarako, sistema korporatiboak eta informazio sistemak mantendu eta hobetzeaz gain, eraldaketa digitala, sinplifikazioa eta desburokratizazioa bultzatzen dugu, ekipamendu eta azpiegitura teknologikoetan beharrezko inbertsioak bermatuz.

Egoeraren diagnostikoa:

Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2024-2027 plan estrategikoan jasota dagoen moduan, lankidetzan oinarritutako erakunde aurre-hartzaile, ekintzailea eta eraginkorra lortu nahi da. Helburu estrategiko horretan oinarrituta, zehazki eraldaketa digitala, sinplifikazioa eta desburokratizazioa bultzatu nahi dugu Aldundiko Departamentuekin, foru sektore publikoarekin eta beste erakundeekin elkarlanean. Helburu hori lortzeko, barne prozesuak, herritarrei eskaintzen dizkiegun zerbitzuak eta herritarrek Aldundiarekin bideratu behar dituzten tramiteak hobetzeko eta errazteko asmoa dugu.

Alde batetik, erakundearen eraldaketa digitala bultzatzen ari gara teknologia berriek eskaintzen dizkiguten aukerak erabiliz informazioaren eta datuen erabilera adimentsuagoa egiteko eta herritarrei zerbitzu hobeagoak eskaintzeko. 2021-2027 Eraldaketa Digitaleko Planaren ezarpenen ondorengo arloetan lan egiten ari gara: eraldaketa digitalaren kudeaketa estrategikoa, pertsonalaren gaitasun digitalak eta prestakuntza, datuen kudeaketa eta adimen artifizialaren erabilera, zerbitzuen digitalizazioa eta azpiegiturak eta ekipamenduak hobetzea. Eraldaketako arlo hauek guztiek azken urteetan garapen garrantzitsua izan dute, eta datorren urteetan gure helburua erakunde osoan finkatzea izango da. Horretarako, sortuko ditugun metodologia, tresna eta baliabideak ahalik eta erabilgarrienak izan daitezela lortu behar dugu eta departamentuei beharrezkoen duten arloetan laguntza eskaintzeko gai izan behar gara.

Helburu horrekin, proiektu traktore bat garatzen lagunduko dugu, Govtech, sortzen ari diren enpresen eta Gipuzkoako foru-administrazioaren arteko lankidetzara bideratutako lan-ildo bat ezartzeko. Prozesu horren bidez, prozesuen eta zerbitzuen berrikuntza eta eraldaketa sustatu nahi da, proiektu esperimentalak eginez.

Gainera, Aldundiko sistema korporatiboak eta informazio sistemak mantentzen eta hobetzen jarraituko dugu, informazioaren segurtasuna kudeatzeko sistema progresiboki garatuz, administrazio elektronikoko aplikazio korporatiboen bitartez, web presentzia kudeatuz eta herritarren arretako zerbitzu korporatiboaren bidez. Bestetik, zerbitzuen eta barne prozeduren sinplifikazioa eta desburokratizazioa sustatzeko ekimenak abian jarriko ditugu hainbat alorretan: herritarren karpetak, online zerbitzuak, barne prozedurak, araudia, zerbitzuen proaktibitatea eta herritarren arretako zerbitzuak. Azkenik, helburu guzti horiek bermatzeko, beharrezkoak diren ekipamendu eta azpiegitura teknologikoetan inbertsioak bideratuko dira.

Beharraren deskribapen xehatua:

Erakundearen berrikuntzarako eta eraldaketarako baliagarri izango diren tresnak eta aholkularitza eskaini behar ditugu, ahalik eta era erraz eta praktikoenean, ondorengo arloen inguruan:

- Eraldaketa Digitaleko Plana garatu eta eraldaketa digitaleko proiektu nagusiak bultzatzea.
- Sinplifikazioa eta desburokratizazioa bultzatzeko ekimenak aurrera eramatea.
- Kanal anitzetan ematen diren arreta eta informazio zerbitzuak bateratzea eta hobetzea; kanal berriak ikertuz.
- Erakundearen informazioaren segurtasuneko kudeaketa-sistema ezartzea.
- Aplikazio eta informazio-sistema korporatiboak mantentzea eta hobetzea.

Nori zuzendua:

- Aldundiko Departamentuak, Zuzendaritza Nagusiak eta Zerbitzuak: eraldaketa digitala, sinplifikazioa eta berrikuntza bideratzeko laguntza eta aholkularitza eskaintzen zaie.
- Herritarrak, enpresak eta elkarteak: kanal ezberdinetan komunikazio, informazio eta arreta zerbitzuak eskaintzen zaizkie.
- Foru sektore publikoa, udalak eta beste administrazioak: jarduera arlo guztietan aholkularitza eta laguntza teknikoak eskaintzen zaie.

Programaren estrategia.

1. Baliabideak (inputak):

Aurrekontuak, pertsonalaren dedikazioa, kanpo aholkularitza, baliabide teknologikoak eta aholkularitza teknikoak (IZFE).

2. Garatu beharreko jarduerak/prozesuak:

- Eraldaketa Digitaleko Planaren ezarpena bultzatzea proiektu ezberdinetan: kudeaketa estrategikoa, pertsonalaren gaitasun digitalen garapena, datuen kudeaketa aurreratua eta adimen artifiziala, azpiegiturak, zerbitzuen digitalizazioa, etab.
- GovTech trakzio-proiektuaren bitartez, prozesuen eta zerbitzuen berrikuntza eta eraldaketa sustatzea, proiektu esperimentalak eginez.
- Sinplifikazioa eta desburokratizazioa sustatzea eta hauen inguruan aholkularitza ematea, zerbitzuen kudeaketa hobetzeko laguntza emanez.
- Aldundiko aplikazio korporatiboak diseinatu, ezarri eta mantentzea.
- Izapideen digitalizazioa eta espediente elektronikoaren ezarpena bultzatzea.
- Kanal anitzetako arreta eta Informazioa: Aldundiaren aurrez aurreko, telefono bidezko eta Internet bidezko arreta eta informazio orokorra ematea.
- Informazioaren segurtasunaren kudeaketa aurrera eramateko laguntza ematea.

3. Ondasun eta Zerbitzuak (outputak):

- Erakundearen eraldaketako arlo ezberdinetan aholkularitza teknikoak.
- Sinplifikazio eta desburokratizazio proiektuak.
- Aplikazio korporatiboak: erakunde osoan erabiltzeko diren aplikazioak eta hauen mantenua eta hobekuntza.
- Administrazio elektronikoa garatzeko sistemak eta aplikazioak, eta hauek ezartzeko laguntza teknikoak.
- Informazioaren segurtasuneko eta datu pertsonalen babeseko arloan aholkularitza.

Programaren arau esparrua:

- Gobernantza Onaren 4/2019 foru araua
- Prozedura Administrazio Orokorreko 39/2015 Legea
- Sektore publikoaren araubide juridikoko 40/2015 Legea
- Foru Administrazioaren eremuan bitarteko elektronikoen erabilera arautzeko 23/2010 Foru Dekretua
- Gipuzkoako Foru Aldundiaren Herritarren Arretarako Foru Sistema arautzen duen 9/2022 Foru Dekretua
- Administrazio arloko arautegi orokorra

2024-2027 KUDEAKETA PLAN ESTRATEGIKOARI LOTUTAKO DEPARTAMENTU JARDUKETA


Urteko helburua: Lankidetzan oinarrituta, Gipuzkoako Foru Aldundi aurre-hartzailea, ekintzailea eta eraginkorra

Adierazlea	Neurri-unitatea	Helburu mota	Azken balioa	Aurtengo aurreikuspena	Urteko helburua	Agintaldiko helburua
Internet bidez egin daitezkeen izapidetzen ehunekoa.	Ehunekoa	>=	91,00	90,00	92,00	95,00
Lankidetzazko gobernantza aurre-hartzailearen garapenaren aurrerapen maila	Ehunekoa	>=	4,50	4,50	5,00	7,00

Adierazlea	Neurri-unitatea	Helburu mota	Azken balioa	Aurtengo aurreikuspena	Urteko helburua	Agintaldiko helburua
Digitalizazio planaren aurrerapen maila	Ehunekoa	>=	60,00	57,00	100,00	100,00
Erretiroa hartuko duten teknikarien % 90ean belaunaldi ondorengotza ziurtatzeko prozesuan parte hartzea	Ehunekoa	=	90,00	90,00	90,00	90,00
Gobernantza aurre-hartzailearen eredura jarduera eredua diseinatzea eta hedatzea	Ehunekoa	=	100,00	100,00	100,00	100,00

Helburuari lotutako ekintza lerroak eta ekintzak


1. Ekintza lerroa:
Eraldaketa digitala sustatzea, datuen kudeaketa aurreratuan oinarrituz eta teknologiek ahalbidetzen dituzten irtenbide digital berriak txertatuz.

	% 100,00					
	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
Ekintza lerroa, guztira	272.986,55			2026/01/01	2026/12/31	
1.1 Ekintza Eraldaketa Digitaleko Plana bultzatzea, ezartzea eta koordinatzea.	228.110,89			2026/01/01	2026/12/31	
1.2 Ekintza Trakzio proiektua: Govtech	44.875,66			2026/01/01	2026/12/31	✓

2. Ekintza lerroa:
Foru Aldundiaren kudeaketa sistema eraginkorragoa garatzea.

	% 100,00					
	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
Ekintza lerroa, guztira	109.292,52			2026/01/01	2026/12/31	
2.1 Ekintza Sinplifikazioa eta desburokratizazioa bultzatzea.	109.292,52			2026/01/01	2026/12/31	

DEPARTAMENTUAREN JARDUKETA OPERATIBOA

Urteko helburua: Kudeaketako tresnak, aplikazio korporatiboak eta informazio sistemak hobetu eta mantentzeko jarduketa operatiboak						
Adierazlea	Neurri-unitatea	Helburu mota	Azken balioa	Aurtengo aurreikuspena	Urteko helburua	Agintaldiko helburua
Kudeaketa sistemetan eta korporazioaren aplikazioetan hobekuntza proiektuak baloratzeko GFaren zerbitzuei zuzendutako inkestaren "balorazio orokorra" elementuan lortutako batez bestekoa	Kopurua	>=	8,02	8,44	8,00	7,80
Foru Jauregiko informazio eta arreta bulegora doazen pertsonen zuzendutako inkestaren "Asebetetze maila orokorra" eremuan lortutako batez besteko puntuazioa	Kopurua	>=	9,80	9,00	9,40	9,40
Helburuari lotutako ekintza lerroak eta ekintzak						
1. Ekintza lerroa: Sistema korporatiboak mantentzea eta hobetzea						
 % 100,00						
	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
Ekintza lerroa, guztira	407.491,73			2026/01/01	2026/12/31	
1.1 Ekintza Foru Aldundiaren informazioaren segurtasuna kudeatzeko sistema progresiboki ezartzea.	92.332,46			2026/01/01	2026/12/31	
1.2 Ekintza Administrazio elektronikoko aplikazio korporatiboak mantentzea eta garatzea.	315.159,27			2026/01/01	2026/12/31	
2. Ekintza lerroa: Aldundiaren informazio sistemak mantentzea eta hobetzea						
 % 100,00						
	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
Ekintza lerroa, guztira	713.289,20			2026/01/01	2026/12/31	

	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
2.1 Ekintza Aldundiko informazio sistema korporatiboak mantentzea eta garatzea.	90.114,76			2026/01/01	2026/12/31	
2.2 Ekintza Foru Aldundiaren jauregira bisita gidatuak antolatzea	29.699,52			2026/01/01	2026/12/31	
2.3 Ekintza Gipuzkoako Foru Aldundiaren web presentzia kudeatzea eta hobetzea.	87.298,00			2026/01/01	2026/12/31	
2.4 Ekintza Herritarren Arretako Zerbitzu Korporatiboa garatzea.	506.176,92			2026/01/01	2026/12/31	
Urteko helburua: IZFEren ekipamendu eta azpiegituretarako inbertsioak						
Adierazlea	Neurri-unitatea	Helburu mota	Azken balioa	Aurtengo aurreikuspena	Urteko helburua	Agintaldiko helburua
Inbertsioen exekuzio-maila	Ehunekoak	>=	78,00	80,00	80,00	80,00
Helburuari lotutako ekintza lerroak eta ekintzak						
1. Ekintza lerroa: IZFEren ekipamendu eta azpiegituretarako inbertsioak gauzatzea						
 % 100,00						
	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
Ekintza lerroa, guztira	4.000.000,00			2026/01/01	2026/12/31	
1.1 Ekintza IZFEren ekipamendu eta azpiegituretarako inbertsioak gauzatzeko baliabideak bideratzea	4.000.000,00			2026/01/01	2026/12/31	

GENERO BERDINTASUNeko PLANA

Programaren genero garrantzia: Handia

Programak ukitzen duen kolektiboa:

Populazio osoa

Programak ukitutako gaitasuna(k):

Gizartean eta politikan parte hartu ahal izatea

Beharraren deskribapen xehatua:

Zerbitzutik bultzatzen ditugun hobekuntza proiektuen bitartez Aldundiaren eraldaketako arlo guztietan genero ikuspuntua txertatzeko aukera ikusten dugu.

Kuantifikazioa: 0,00 (% 0,00)

Ordainketa kredituak: 0,00 (% 0,00)

Datozen urteetako gastuak: 0,00 (% 0,00)

HIZKUNTZA BERDINTASUNeko PLANA

Beharraren deskribapen xehatua:

Foru Aldundian sinplifikazioa eta desburokratizazioa ezartzeko orduan eta Eraldaketa Digitaleko proiektuak garatzeko orduan hizkuntza ofizialen kudeaketa txertatzeko aukera ikusten dugu, ahal den neurrian euskara lan hizkuntza bezala indartuz. Datorren urteetan euskaraz sortzea bultzatuko dugu tresna korporatiboen eta hobekuntza proiektuen bitartez.

Kategoria	Nola
1.- Euskararen kudeaketa orokorra	Sinplifikazio eta desburokratizazioa bultzatzeko unean, aztertzen diren prozeduretan hizkuntza berdintasuneko irizpideak aztertu.
8.- Herritarrekiko harremanak	Hizkuntza berdintasuneko irizpideak betetzen direla bermatzea.
	Bisita gidatuak euskaraz eta gaztelaniaz egiten direla bermatzea.
	Hizkuntza berdintasuneko irizpideak betetzen direla bermatzea.
12.- Baliabide informatikoak	Oinitzak egitasmoaren barruan, edukiak eta metadatuak lagatzeko, hizkuntza-eredu eta osagai linguistikoak entrenatzeko eta, horrela, euskara adimen artifizialeko teknologietan integratzeko, GFA eta EHUren arteko lankidetzak hitzarmenaren eremuan, jarraipen batzordean parte hartu.
	GovTech trakzio-proiektuan, bideratzen diren soluzio-teknologikoetan hizkuntza berdintasuneko irizpideak txertatu.

PARTAIDETZA PLANA

Beharraren deskribapen xehatua:

Hobekuntzako proiektu giltzarrietan herritarren nahiz Aldundiko langileen partaidetza bultzatuko dugu, batez ere digitalizazioaren eta tramitazio elektronikoaren arloetan aurki daitezkeen arrakalak gutxiagotzeko.

Kuantifikazioa:	4.562,22	(% 0,08)
Ordainketa kredituak:	4.562,22	(% 0,08)
Datozen urteetako gastuak:	0,00	(% 0,00)

Kategoria	Kategoria %	Nola
1. HAUSNARKETA ETA ERABAKIA HARTZEA	(% 100,00)	7. Bestelako partaidetza prozesuak

GJH

Beharraren deskribapen xehatua:

Gipuzkoako Foru Aldundiak 2024-2027 legealdirako Plan Estrategikoan zeharkako gaitzaile bezala ezarri du "Lankidetzan oinarrituta, Gipuzkoako Foru Aldundi aurre-hartzailea, ekintzailea eta eraginkorra" sustatzea; gaitzaile hau 16. Garapen Iraunkorreko Helburuan koka daiteke, hau da, bakea eta justizia bultzatuko duen erakunde solido bat bilakatzeko alorrean.

Kuantifikazioa: 5.503.060,00 (% 100,00)

Programari lotutako GJH zerrenda

GJH, Helburu eta Ekintza lerroak		Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak
	16-Bakea, justizia eta instituzio sendoak Garapen jasangarrirako gizarte baketsuak eta inklusiboak sustatzea, guztioi justiziarako sarbidea erraztea, eta erakunde eraginkorrak eta inklusiboak sortzea maila guztietan.	5.503.060,00	
Helburua	16.06 - Kontuak emango dituzten erakunde eraginkorrak eta gardenak sortzea maila guztietan	4.819.470,32	
Ekintza lerroak			
Sistema korporatiboak mantentzea eta hobetzea		407.491,73	
Aldundiaren informazio sistemak mantentzea eta hobetzea		29.699,52	
IZFEren ekipamendu eta azpiegituretarako inbertsioak gauzatzea		4.000.000,00	
Eraldaketa digitala sustatzea, datuen kudeaketa aurreratuan oinarrituz eta teknologiek ahalbidetzen dituzten irtenbide digital berriak txertatuz.		272.986,55	
Foru Aldundiaren kudeaketa sistema eraginkorragoa garatzea.		109.292,52	
Helburua	16.10 - Informaziorako sarbide publikoa bermatzea eta oinarritzko askatasunak babestea, estatuko legeen eta nazioarteko akordioen arabera.	683.589,68	
Ekintza lerroak			
Aldundiaren informazio sistemak mantentzea eta hobetzea		683.589,68	
Guztira		5.503.060,00	

PROGRAMAREN AURREKONTUAREN LABURPENA / RESUMEN DEL PRESUPUESTO DEL PROGRAMA

Gastuen kapituluak / Capítulos gastos	2025	2026	Datozen urteetako gastuak/Gastos Futuros				
			2027	2028	2029	2030 eta hurrengoak/ 2030 y siguientes	Guztira / Total
1. LANGILERIA GASTUAK GASTOS DE PERSONAL	1.198.295,00	1.198.810,00					
2. ONDASUN ETA ZERBITZUEN GASTU ARRUNTAK GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS	313.660,00	304.250,00					
3. FINANTZA GASTUAK GASTOS FINANCIEROS							
4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK TRANSFERENCIAS CORRIENTES							
5. KONTINGENTZIETARAKO ETA BESTE EZUSTEKO BATZUETARAKO FUNTSA FONDO DE CONTINGENCIA Y OTROS IMPREVISTOS							
Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes	1.511.955,00	1.503.060,00					
6. INBERTSIO ERREALAK INVERSIONES REALES							
7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK TRANSFERENCIAS DE CAPITAL	3.237.791,00	4.000.000,00					
Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital	3.237.791,00	4.000.000,00					
8. AKTIBO FINANTZARIOAK ACTIVOS FINANCIEROS							
9. PASIBO FINANTZARIOAK PASIVOS FINANCIEROS							
Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras							
Guztira / Total	4.749.746,00	5.503.060,00					

Planen zenbateko osoa, kapituluka / Total planes/capítulos	Ordainketa kredituak / Créditos de pago		Datozen urteetako gastuak / Gastos futuros		Guztira / Total	
	Estrategikoa / Estratégico	Operatiboa / Operativo	Estrategikoa / Estratégico	Operatiboa / Operativo	Estrategikoa / Estratégico	Operatiboa / Operativo
1. LANGILERIA GASTUAK GASTOS DE PERSONAL	276.590,99	922.218,99			276.590,99	922.218,99
2. ONDASUN ETA ZERBITZUEN GASTU ARRUNTAK GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS	105.688,08	198.561,94			105.688,08	198.561,94
3. FINANTZA GASTUAK GASTOS FINANCIEROS						
4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK TRANSFERENCIAS CORRIENTES						
5. KONTINGENTZIETARAKO ETA BESTE EZUSTEKO BATZUETARAKO FUNTSA FONDO DE CONTINGENCIA Y OTROS IMPREVISTOS						
Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes	382.279,07	1.120.780,93			382.279,07	1.120.780,93
6. INBERTSIO ERREALAK INVERSIONES REALES						
7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK TRANSFERENCIAS DE CAPITAL		4.000.000,00				4.000.000,00
Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital		4.000.000,00				4.000.000,00
8. AKTIBO FINANTZARIOAK ACTIVOS FINANCIEROS						
9. PASIBO FINANTZARIOAK PASIVOS FINANCIEROS						
Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras						
Guztira / Total	382.279,07	5.120.780,93			382.279,07	5.120.780,93